

## Durangon, 2002.eko ekainaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,  
Henrike Knörr, buruordea (goizean),  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina  
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,  
Patxi Altuna,  
Jean Louis Davant,  
Andolin Eguzkitza,  
Andres Iñigo,  
Emile Larre,  
Juan Mari Lekuona  
Txomin Peillen,  
Pello Salaburu,  
Jose Mari Satrustegi  
Piarres Xarritton  
eta Patxi Zabaleta, euskaltzainak,  
Jose Luis Lizundia idazkariorde-  
kudeatzailea,  
Mikel Gorrotxategi Onomastika  
batzordearen idazkaria (1.1. gaien)  
eta Juan Jose Zearreta ekonomi eragilea.

**Ezin etorriak:** Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Beñat Oihartzabal, Frantzisko Ondarra eta Juan San Martin, euskaltzainek beren ezin etorria adierazi dute.

P. Goenagak eta B. Oihartzabalek ahala Euskaltzainburuari utzi diote.

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Durangoko udaletxean ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

### *Alkate andrearen ongi etorria*

Hasieran, Durangoko alkate andreak, Pilar Ardantzak Euskaltzaindiari udaletxearen ongi etorria egin dio, hiri honetan bere hileroko bilera egitean eta P.P. Astarloa herriko semearen omenaldia antolatzean Durangoko herria ohoratzen duela adieraziz. Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkio bere eta akademia osoaren izenean.

### *Aurreko batzar agiria onartzea*

Andres Iñigok, P. Goenagak eta eta P. Salaburuk ahoz eta idatziz eginiko ohar-zuzenketekin, aurreko bileraren akta onartu da.

### *1. Hizkuntza arauak*

#### *1.1.1. Onomastika. Nafarroa Behereko Herri izendegia (3. zerrenda).*

Hasteko, A. Iñigok katalanek onomastika arloan onartuak dituzten irizpide batzuk azaldu ditu, gure arazoarekin zerikusia dutelako.

Ondoren **1.1.1.1 txostena** irakurri du, onomastika batzordearen proposamenekin, izen bereko herri-izenak behar denean bereizteko zertzuk egin daitezkeen azalduz.

Izen bereko herri-izenak bereizteko arazo honetaz, J. L. Lizundiak berak Kataluniako *Institut d'Estudis Catalans*-era determinatiboez egindako galderen erantzuerak irakurri eta Ipar Kataluniako kasuak azaldu ditu, *Els municipis de Catalunya (1.1.1.3 txostena)* komentatuz. Katalanen zentzu nazionala azpimarratu du, Katalunia osorako

beti irizpide berbera aplikatuz, Frantziak bereizketarik egiten ez duenean ere berek hakoak eginez.

X. Kintanak gaineratu du, azken buruan problema deituzena bezalakoa dela, alegia, He, goaldeko hiritarrok legez bi deitura ditugun arren, eskuarki lehena besterik ez dugula erabiltzen, bigarrena deitura bereko beste pertsona batengandik bereizteko soilki agertuz. Adibidez *Xabier Mendiguren* izeneko idazle bien (*Bereziartu* eta *Elizegi*) kasua aipatu du. P. Altunak gaineratu du berak ere antzeko nahasbidea izan zuela aurreko batean beste X. *Kintana* batekin, horren bigarren deitura jakin ez zuelako.

P. Salaburuk, oraingo proposamenari bidezkoagoa deritzo, baina halere, iparraldeko izenak ahalik eta gutxien markatu beharko liriatekeela uste du. Edonola ere, bere iritziz, *Getaria Lapurdi* baino egokiago *Getaria Lapurdikoa* litzateke.

M. Gorrotxategik hitza eskatu eta, gai berberaren gainean, arau iparraldeko zein hegoaldeko udal izenei berdin aplikatzen zaiela esan du. *Hiriberri* izena dela eta, adibide batzuk jarri ditu. Iparraldeko *Donibane Garazi*-ren eta Hegoaldeko *Etxarri Aranatz* eta *Uharte Arakil* gisako eredu zaharrei segituz, *Getaria Lapurdi* hobetsi da eta ez Lapurdikoa, beti eta non-nahi irizpide berbera erabiltzeko.

P. Xarritonek erantzun du *Getaria* edo *Lekunberri* moduko izenetan nahasbide handia gerta daitekeela, eta toki guztietan irizpide berberaz jokatzeari ez dela beti hain erraza izanen.

Andolin Eguzkitzak elkarrizketa antzuan ez sartzeko eskatu du, batzordearen proposamena, bere aburuz, egokia delako, bigarren izena beharrezko eta bereiztu beharrezkoa denean besterik ez baita erabili behar.

P. Salaburuk lehenagotik datozkigun egitura zahar eta finkatuen (*Etxarri Aranatz*) eta egitura berrien artean (*Getaria Gipuzkoa* / *Getaria Lapurdi*) bereiztea eskatzen du: bigarrenen kasuan gaur *-koa* jartzea normalagoa baita.

A. Iñigok arazoa beti bere osotasunean hartu dela azpimarratu du, eta ez Euskaltzaindian behiala jokatzen zen bezala, tokian tokiko irizpide ezberdinekin. Sistema tradizionalari eutsi beharra dakusa, *Uharte Arakil*-en aldamenean ez baita logikoa *\*Hiriberri Arakilgoa* jartzea.

J. L. Lizundiak, bere aldetik, azaldu du *Lekunberri* ez dela orain arte udala izan, eta horregatik ez dela egon horrelako tratamendupean. Bestalde, herri-izenen ofizialtasuna ematea nori dagokion argitu du: Euskal Autonomia Erkidegoan Batzar Nagusiei eta Nafarroan bertako Gobernuari, Parlamentuan horren kontua emanaz, kasu bietan Euskaltzaindiaren irizpen ofiziala beharrezkoa izanez. Zentzu eta kontzientzia nazional orokorrerako deia egin du, Kataluniako *Santa Coloma* deritzen herri ezberdinen izenetan, Ipar Kataluniakoak barne, katalanek jokatu duten bezala.

Mikel Gorrotxategik -ko eranstean deklinabidean ager litezkeen nahaste eta kafonkiak ere kontuan hartzekoak direla esan du (*Getaria Gipuzkoakoko eliza*, etab.).

A. Eguzkitzak bigarren izena beharrezkoa denean besterik ez dela erabili behar gogoratu du, proposamenari zuzen iritzi.

J. M. Satrustegik esan du Onomastika batzordea orain arteko esperientziaz baliatu nahi izan dela, eta proposamen hauxe dela problema gutxien dakarrena, single be-

zain efektiboa baita. P. Salaburuk galdetu du ea, proposamen horren arabera, mintzaztean edo era informalean *-koa* ere erabil daitekeen. A. Eguzkitzak baietz erantzun dio, *-ko* gabea zerrenda eta izendapen ofizialetan uztekoa baita.

Tx. Peillenek esan du era horretako bikoteak Zuberoako idazleen artean ere aurkitzen direla, eta batzordeak proposaturiko bidetik bereizten direla, *Etxahun Iruri* eta *Etxahun Barkoxe* adibideak erakusten duenez. J. Haritschelharrek adierazi du bere ustez proposamena egokia eta ongi asmatua dela, eta beti ere idazleari askatasuna uzten zaiola. J. L. Lizundiaren ustez, nolahi ere den, komenigarria litzateke P. Salabururen iradokizuna gogoan izatea, eta proposamenari deklinabideari buruzko azpiorra ere jartzea.

Bototara joanda proposamena gehiengo osoaz (16 boto) onartu da.

P. Xarritonek irizpide hori Lapurdiko izenei ere aplikatzea eskatu du. A. Iñigok *Getaria* eta *Jatsu* izenei buruzko 1.1.1.2 txostena irakurri du, bereizketa egin behar denean, *Getaria Lapurdi* eta *Jatsu Lapurdi* direla azalduz eta horrek eskatzen du 108. araua aldatzea bi izen horiei dagokienez. P. Xarritonek Zuberoako beste izen batzuk ere gisa berean moldatu behar direla gogoratu du. Hala egingo dela esan zaio.

*Bastida* izenari dagokionez, P. Xarritonek, egokiena *Bastida Arberoa* litzatekeela uste du. E. Larrek, ordea, argitasuna eta gaurko jendearen erabilera kontuan izanda, *Bastida Klarentza* nahiago luke, frantses hitza euskaldunduz. P. Xarritonek erantzun dio, ahal delarik hobe litzatekeela euskarazkoari eustea.

J. L. Davantek esan du *Bastida*-ri *Amikuze* eranstearekin kontuz ibili behar dela, frantses legean izen horretako tokiak badirelako. P. Salabururen ustez, Iparraldekoen iritzia entzunda, onena litzateke *Bastida*-ren «deitura» zein izango den erabakitzea Onomastika batzordearen esku uztea. Halaxe erabaki da.

Ondoren *Izturitze/Isturitze/Ixturitze* arazoa ukitzera pasatu da. Lehengo eta oraingo joera ezberdinak aztertu dira: datuen argitan z-dun grafiek zaharragoak dirudite, s-dunek frantses eraginetik helduak, eta x-dunak, aldiz, hipokoristiko modernoak. Bototara joanda, *Izturitze* onartu da. <sup>1</sup>

### 1.2.1. Hiztegi batua: Aitzur-aldaratze zerrenda

P. Salaburuk aipatu du bi ohargilek oharrak berandu aurkeztu dituztela eta ezin izan dituela ikusi. Besteenak ikusi ahala, kontura badatoz, horiek ere aztertzea onartu da. A. Eguzkitzaren eta A. Urrutiaren azken oharrak ikusi eta *aiuntamentu*-tik *aizko-rainoko* hitzak aztertu dira. Goizeko bilera 13,58etan eten da, bazkaltzera joateko.

\* \* \*

Arratsaldeko 4,8etan bilera berriz hasi da.

**Aizta** berbatik **akzidente** hitzerainoko ohar guztiak banan-banan aztertu eta erabaki dira, honen eranskinetan doan zerrenda osatuz.

*Eskuarteoak**Arantzazuko uztaleko bileraz*

J. L. Lizundia: Arantzazun, uztailaren 18-19etan goizeko 10etan hasi eta bi egunetako programa aurkeztu du. Hirugarren puntua pixka bat zuzendu du, berau *Franziskotarrak, euskara eta Euskaltzaindia* izango dela argituz.

A. Iñigok Nafarroako *Cámara de Comptos*-en kontsulta bat dagoela gogoratu du, eta lehenbailehen ikusi eta erabakitzea nahi luke, presakoa da eta. Datorren bileran ikustea erabaki da.

*Azken ordukoak**Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena*

Ondoren, Euskaltzainburuak Nafarroako hitzarmenaren berri eman du. Hitzarmena jadanik sinatu da baina ez protokoloa. Urrutiak horren historia azaldu du laburki. Jesus Laguna Hezkuntza eta Kultura Sailburuak esan zionez, arazoak presa zuen eta asteartean sinatu beharra zekusan, diru-ordainketak atzera ez daitezzen. Ostegunean (ekainaren 27an) sinatu zen. Protokoloa ere aski garatua da eta laster sinatzekoa dateke. Dirua ere ordaintzeko agindurik dago, eta Euskaltzaindira heltzea laster espero izatekoa da.

J. A. Arana diruzainak J. Laguna jaunarekin izandako elkarrizketa azaldu du. Iazko dirua berehala etorriko zaigula uste izan arren, aurtengoa ez dirudi hain laster izango dugunik. Madrilek lehenbiziko bi hiruilekoak datorren hilean pasatuko omen dizkigu. J. J. Zearreta ekonomi eragileak Bizkaiak eta Arabak aurtengo diru osoa honezker ordaindu digutela argitu du, eta Gipuzkoak eta Jaurilaritzak, aldiz, erdia. Bestalde, J. Haritschelhar euskaltzainburuak Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmen berriaren testua gaur heldu zaigula esan du.

*Kontseiluari bidaltzeko gutuna*

A. Urrutia Jagon Sailburuak Kontseiluaren 2002.eko apirilaren 12ko gutuna irakurri du, «Bai euskarari» lema luzaroago erabiltzeko igorri zitzaion debekuari erantzunez. Lizundiak azken urteotan Kontseiluaren eta Euskaltzaindiko Zuzendaritzaren artean izandako aurrekariaren berri eman du. Ondoren A. Urrutiak berak prestatu duen erantzun juridikoa irakurri du, Zuzendaritzan onartua.

P. Salaburuk galdetu du ea gutunean aipatzen den kalte hori zehazki nondik heldu zaigun. A. Urrutiak *Bai euskarari* esloganaren erabilera bikoitz eta nahasiagatik gure Fundaziorako eta diru-eskariak egiteko orduan datozkigun arazoak azaldu ditu, jendeak maiz Kontseilua eta Euskaltzaindia dena bat dela uste baitu.

P. Zabaleta gutunaren mamiarekin konforme dago, baina forma biguntzea nahi luke, zentzu juridikoa gordeta. P. Salaburuk azaldu du bera beti kritikoa izan dela Kontseiluarekin, Euskaltzaindiarekin izan duten jarrera ez baitzaio egoki iruditu. Halere, dokumentua dagoen bezala aterata, kanpora begira jendea nahastekoa izan daitekeela uste du, eta pentsatzen du haiek joandako enpresetara eskutitz bana bidali behar dela haiek gure izenean ez doazela jakinarazteko.

Euskaltzaindiak Kontseiluari bidali behar dion gutunari oharrak bidaltzeko, uztailearen 17ra arteko epea eman da.

Bilera arratseko 19,40etan amaitu da.

Euskaltzainburua  
Jean Haritschelhar

Idazkaria  
Xabier Kintana